

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2011ko martxoaren 8a. VIII. urtea. 2.188. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Atsedena taldekoak 101 dalmataz atera ziren, Txiribitukoak tetriseko fitxaz eta Ttenttekoak Panpin etxea irudikatu zuten. R. CALVO-A. IMAZ

Konpartsen dantzak jaun eta jabe

Herenegun hasi zen mozorroen festa; Zaldunitan karrozen txanda izaten da, gaur bezala, eta Astelenitan aisialdi taldeen konpartsek hartzen dute lekukoa

Amezketan eta Abaltzisketan ere Inauteriak ospatzen dituzte; lehenengoan talai dantzariak dira protagonista eta bigarrengoan berriz, txantxoak **2-6**

BEGIRISTAIN

tolare sagardotegia

Asteartetik larunbatera afariak
eta ostegunetik igandera bazkariak



Iturriotz baserría • 20267 Ikaztegieta • ☎943-65 28 37 - 607-36 57 43
Faxa: 943-18 74 06 • s.begiristain@terra.es

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34



Komikia

Nando



↓ **Egitaraua, Asteartita**

UDALAREN EGITARAUA

- **06:00etan.** Udal Txistulari Bandak *Alborada* joko du udal-letxeko arkupean, Berdura plazan eta Felipe Gorriti plazan.
- **08:00etan.** Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.
- **11:00etan.** Plaza Berrian sokamuturra Kabi-Alairekin.
- **11:00etan.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **15:45ean.** Herriko Txistulari Bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.
- **16:00etan.** Kalejira Kabila, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
- **16:30etan.** Zezenak zezen-plazan; txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
- **19:00etan.** Dantzaldia Berdura plazan.
- **23:30ean.** Incansables Zaharrak eta Jainekinen irteera.
- **23:30ean.** *Sardinaren hileta.*

TXOSNA GUNEA

- **18:00.** Txoznen irekiera.
- **19:00.** Mozorro lehiaketa.
- **21:00.** Afari feminista. «Neskak eta mutilak, denok batera, Martxoak 8 ospatzera». *Egun guztian zehar tragoak 3X2!*

Aloña Arozena • Inauterizalea

«Urtero joaten naiz Tolosara eta igandean ez dut hutsik egiten»

Eneritz Maiz

Kalean ibiltzea, mozzorrotzea, parranda egitea...gustatzen zaion horietakoa da Aloña Arozena (Villabona, 1982).

Billabonarra den arren ez du inoiz hutsik egin Tolosako Inauterietan. Orain ordea, lana dela eta, ezin izaten du nahi beste gozatu, baina aurten ere Zaldunita egunean ez du hutsik egin. Tolosatik urrun egon arren, haurreskolan ere, ostiralean, lankide eta

haurrekin batera behiez mozzorrotuta pasa zuen eguna.

Tolosarra ez izanagatik beti joaten al zara Inauterietara?

Bai, gurasoeekin txikitari beti joaten nintzen Tolosara eta gero beti lagunekin, eta gustura.

Nola bizitzen dituzu Inauteriak?

Gustatzen zaizkit eta beti Inauteriak gerturatu aurretik koadrilan mozzorroa prestatzen hasten gara ilusioarekin baina hala ere, ez dut uste tolosar batek adina bizitzen ditudanik. Baina gusta-



Lankidearekin batera, eskuinekoa da Aloña Arozena. HITZA

tzen zaizkit! Eta urtero joaten naiz, igandean seguru, asko gustatzen zait egun hori eta osteguna ere bai.

Eta aurtegoak nola ari zara bizitzen?

Ba aurten egia esan ez dut behar adina gozatzeko aukerarik izan. Lanera joan beharra izan dut eta ostegunean buelta bat egiteko

ere ez nuen tarterik izan lanaz gain ikastaroa nuelako. Igandean ateratzen nintzen goizetik eta gero txintxo-txintxo trenetz etxera, lanera joan ahal izateko. Lehen bai, batik bat ikasle garaian, egunero ateratzen nintzen, eta orduan bai topera.

Mozzorrotzen zara?

Bai, urtero. Azken urteetan koa-

↓ **Tragoxka batean**

■ **Egun bat.**

Igandea.

■ **Mozorro bat.**

Aspalditik euliz janztea gustatuko litzaidake, baina inoiz ez dut lortzen jendea konbentzitzea.

■ **Kalea edo taberna.**

Kalean giro oso polita egoten da, baina Inauterietan gehiengotan hotza egiten du eta beraz, taberna ere bai.

■ **Eguna edo Gaua.**

Orokorrean gaua esango nuke, baina esaterako Zaldunita eguna, egunez asko gustatzen zait.

drilan mozzorrotzen gara eta asko gara eta batzuetan erabakitzea ere ez da erraza izaten. Zer jantzi asmatu ezinik eta nahiko azkenean momentuan ibiltzen gara.

Erositakoa ala etxeko trapu zaharrekin osatuak izaten dira?

Urterean batzuetan erosi izan ditugu mozzorroak, baina beste askotan bakoitzak etxean duenarekin egin izan dugu, aurten bezala. Gai bat jarri eta bakoitzak bilatzen duenarekin ateratzen gara.

Nolako mozzorroak bilatzen dituzu?

Ahal bada, bere paperean sartu eta jokoa ematen duten mozzorroak gustatzen zaizkit. Gustura ibiltzen naiz.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sokamuturra ere ezin ahaztu

Astelenita txarangen doinuekin esnatu da, ondoren egitarauak ez du atsedetik hartu

Asier Imaz Tolosa

Atzo goizean, Zaldunitako txarangen piezen, karrozen musikaren eta jendearen burrunbaren oihartzuna oraindik entzuten zen kaleetan, hori bai, gero eta urrunago. Dena isiltzera zihola, 09:00ak inguruan, berriro hasi zen jaia. Plaza Berriaren inguruetan, «Astelenita tokatzen dek gaur, ezta?» entzuten zen. Erretiratzeko asmorik ez zuen pinguino bat zen. Aldameneko lagunak, bezperan zertaz mozorrotu zen ongi gogoratzen ez zenak, portzierto, «mozorroa aldatzera joan beharko diagu!», bota zion.

Jaiak ez du etenaldirik eta Zaldunitak egutegian ez du biharamunik edo burukominik, Astelenita indartsu etorri baitzen: 09:00etan txarangen irteera eta 11:00etan sokamuturra. Ondoren, aisialdi taldeen karroza eta konpartsen irteera.

Sokamuturrari begira

Arco Iris txarangaren piezek girotu zuten atzo Plaza Berria 11:00etatik aurrera. Jende mordoxka elkartu zen bertan, urteroko korrika saioak egiteko asmoz. Jada ezagun bilakatu diren sokamuturzaleak ziren. Zezen txiki bi-ziak bata bestearen atzetik irten ziren plazara, kale iskinean egokitu zuten atetik. Bankuak, farolak... etxe moduko babeslekuak bilakatu ziren. Lazkoarekin alde-ratuz, aurten euriak ez zuen lurra bustitzeko astirik hartu eta korrikalariak gogotik gozatu zuten. Atzo ikusitakoaren arabera, bada sokamutur zale amorraturik Tolosan eta Inauterien barneko «gozamen» hau mantentzearen aldekorik.

Arratsaldean zezenak ohiko lekura itzuli ziren, hau da, zezenplazara. Aisialdi taldeen eguna zenez, harmailak goraino bete ziren, eguraldiak ere lagundu baitzuen.

Gaur azkenik, bi zezen saio ikusteko aukera egongo da, Inauterietako azken egun honetan. Goizean goiz, 08:00etan, Pattar Zezena izango da zezen-plazan. Arratsaldean, ohi bezala 16:30ean, aurtengo Inauterietako azken saioa egongo da zezen-plazan. Ondoren txaranga kalera irtengo dira eta azken orduak gozatzeko aukera egongo da. Ziur batek baino gehiagok, hurrengo eguna baino hurrengo urtea izango duela buruan.



Plaza Berrian sokamuturra eta txaranga ikusteko aukera egon zen atzo goizean. I. GARCIA



**MENDEKOTASUNAREN
LEGEAK GIPUZKOAN
IZANGO DUEN ERAGINA.
INFORMAZIOA**

Tarteko mendekotasuna duten pertsonak ere izango dute laguntza 2011n: I. graduako 2. mailako mendekotasuna dutenek, hain juxtu. Pertsona horiek zein diren? Egunean behin behintzat laguntzaren bat behar dutenak, eguneroko bizimoduko jarduerak onartzeko batzuk egiteko; eta baita aldiari behin nolabaiteko laguntzaren bat behar dutenak ere, beren kasa moldatzeko.

Gratu horretako mendekotasuna dutenentzat telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak daude, eta baita prestazio ekonomiko batzuk ere pertsona bere ingurunesk atara gabe zairtzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzaren Foru de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzaren Foru de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Tolosa txiki gelditu da

Asier Imaz Tolosa

Eguzkiarekin esnatu zen Zaldunita eguna, askoren ustez, Inauterietako egunik handiena. Agian, bazuen gertatuko zenaren berri eta jaiarekin bat egin nahi izan zuen.

Hilabete luzeetako lana kalera ateratzeko garaia iritsi zen. Konpartsak inoiz baino gehiago eta ikusleak ere berdin. San Frantzisko, Rondilla eta aldameneko kaleak txiki gelditu ziren, Tolosa bera txiki gelditu zen. Izugarria izan zen herenegun gertatua. Jendea argazkirako prest zegoen, geldigeldi, mugitu ezinik, goiz guztian zehar. Konpartsek ere aurrera egiteko arazoak izan zituzten eta metro gutxiren bueltan egin behar izan zituzten euren dantza, antzerki eta asmakizunak. Hauek erakutsi zuten maila, berriro ere, bikaina. Sormenak mugarik ez duela argi geratu zen Zaldunita egunean.

Herenegun ateratako argazki denak jartzea ezinezkoa da, denei argazkiak ateratzea ezinezkoa den bezala. Hala eta guztiz ere, hemen bakan batzuk. Gehiago, www.tolosa.hitza.info-n.



Gehiegi. Jende eta karroza gehiegi elkartu ziren San Frantziskon Zaldunitan. Oinez ibiltzeko eta inguruaz gozatzeko zailtasunak zeuden. A. IMAZ



Tolosar ibartar hauek urtetik urtera maila altuagoa erakusten dute, alor guztietan. Ikusgarria. A. IMAZ



Zuzeneko emanaldiak ikusteko aukera egon zen igandean. A. IMAZ



Txiki-txikitatik konpart sarekin, hori bai, lanak hobeto banatu behar dira. I.A

June 2011 Examination
First - Advanced - Proficiency

Izen-ematea zabalik
martxoaren 22ra arte

UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Authorised Centre: ES020

Ordizia, Lazkao, Tolosa, Zarautz, Donostia eta Irunen

Donostia eta Irunen | 902 012 912
www.lacunza.es | cambridge@lacunza.es



Aisialdi taldeen konpartsek kolorez bete dituzte kaleak

Astelenitarekin batera iristen da herriko gaztetxoaren koreografiak eta jantziak ikusteko aukera

Erredakzioa

Goizean goizetik gazteak ziren nagusi San Frantzisko pasealeku inguruan. Aisialdi taldeen eguna da Astelenita. Hilabeteetan prestatutako koreografia eta jantziak astintzeko eguna. Urteroko moduan sei aisialdi talde izan ziren kalean, eta urtero bezala, jende asko gerturatu zen dantzak ikustera.

Atsedena taldekoak 101 dalmataz atera ziren. Abestia entzuten hasi bezain pronto Cruella de Vil azaldu eta bera eta txakur guztiak dantzan ikusi ahal izan ziren.

Kazkabarrak, aldiz, Charles Chaplin aukeratu zuten aurtengoan. 400 gaztetik gora atera zi-

ren, batzuk Chaplin arruntez, beste batzuk Chaplin langileaz, bazen ere Chaplin preso eta polizia, amaitzeko.

Kirikiñok Alicia bitxikerien lurraldeaneko pertsonaiak ekarri zituen Tolosara: bikiak, katuak, kapelak, erreginak, Alicia bera noski, eta baita ipuineko karta ezagunak ere.


San Bernardorekin Eskaut amerikar uniformatuak ikusi ahal izan ziren eta bazuten berezitasunik, gainera, taldearen 50. urteurren dela eta taldetik azken urteetan pasa diren partaideek ere dantzatu baitute aurtengoan.

Ttenttekek Panpin etxea aukeratu du. Txikienak gusiluz eta artzaz jantzita zueden, ertainak dantzari eta berunezko soldadutxoaz eta helduenak arlekin eta trapuzko panpinez.

Bukatzeko Txiribitu taldekoak tetrisen fitxaz atera ziren; zuta-beak, I-ak, T-ak, laukak eta L-ak izan ziren dantzako protagonistak.



Ttenttekek eta Txiribitu taldekoak; lehenengoak Panpin etxeaz eta besteak, Tetriseko fitxetaz. A. IMAZ-R. CALVO



Kazkabarrako Charles Chaplinak eta San Bernardoko eskaut amerikar uniformatuak. R. CALVO



Atsedena eta Kirikiño taldeko gazteak dantzan. R. CALVO

CAMBRIDGE Examination Courses
azterketak prestatzeko ikastaro bereziak

Ordu t'erdiko 2 saio astean, eguerditan edo arratsalde-gau partean
3 ordu segidan, ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan
Irakasle aditu eta espezializatuak | Ahozko proba, benetako baldintzetan

LACUNZA
Donostian eta Irunen | 902 012 912
www.lacunza.es | cambridge@lacunza.es
 UNIVERSITY OF CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Established since 1968

A MEMBER OF THE INTERNATIONAL ASSOCIATION OF LANGUAGE CENTRES



Abaltzisketan txantxoak ibili dira puske biltzen eta Amezketan talai dantzariak

Asier Imaz

Gerra garaian galdutako ohitura-ekin jarraitzen dute Amezketan eta Abaltzisketan. Lehenean talai dantzariak irteten dira etxez etxe eskean eta bigarrenean txantxoak. Bi herrietako ohiturak antzekotasun handiak ditu. Hala eta guztiz ere, koadrilen jantziak ezberdinak dira.

Baserrietako ibilbidea igande goizean hasi zuten Amezketan eta Abaltzisketan. Txantxoek lehen itzuli goiztiarra egin ondoren, herriko ostatuan hamaiketako egiteko parada izan zuten. Indarrak berrituta, meza noiz amaıtuko zain egon ziren, bertatik irteten ziren herritarrei dantza egiteko.

Abaltzisketan ez bezala, atzo ere baserriz baserri ibili ziren Amezketako talai dantzariak. Normalean bi talde irteten badira ere, atzokoan bakarrak egin behar izan zuen Ugartetik Amezketarako itzulia. Hori bai, Bedaio-tik barrena ibiltzeko furgoneta-ren laguntza izan zuten.

Jantzien ezaugarriak

Txantxoaren jantziak bereziak dira: alkandora eta galtza zuriak



Etxez etxe makilen dantza zabaltzen

eramaten dituzte, txapela gorria borla zuriarekin, gorbata beltza eta bi ezkon-mantoi koloretsu. Mozorroek berriz, aurpegia beltzez margotuta ateratzen dira eta puska biltzea da euren egitekoa. Dantza egin aurretik baserri atarian erratza pasatzen dute.

Talai dantzariak mahoizko galtzekin eta alkandora txuriekkin ateratzen dira. Gerriko eta txapela beltzak ere eramaten dituzte, eta bukatzeko abarkak eta zapi koloretsuak izaten dituzte.



Txantxoaren eta Talaien bideoa 'www.alegaldea.hitza.info' helbidean. HITZA

Talai dantzariak Bedaion barrena. Ugartetik Amezketarako itzulia egin zuten atzo. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongadan ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neuriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzten diren Hileta Zerbitzu Paketak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Emakumeek berdintasuna aldarrikatuko dute eskualdean

Emakumearen Eguneko ekitaldiak gaur hasiko diren arren, gehienak asteburuan egingo dituzte

Maier Ugartemendia

Gaur Emakumearen Nazioarteko Eguna da. Hau dela eta, eskualdeko hainbat herritan ekitaldi ugari antolatu dituzte. Datoren egunotan mota guztietako ekitaldiak izango dute tartea. Horien artean daude hitzaldiak, elkarretaratzeak, afariak eta abar.

Emakumeen Eguna asteartean tokatu dela eta Inauteriak direla kontutan hartuta, herri gehienetan ekitaldiak asteburura atzeratu dituzte. Herri gehienetan asteburuan afariak protagonista izango diren arren, Villabonan eta Leitzaldeen esate

baterako, emakumearen astea ospatuko dute aste honetan. Villabonan bost egunez luzatuko dute ospakizuna. Gaur elkarretaratzearekin hasiera emango diete emakumearen asteari eta datozen egunetan erakusketak, tailerrak eta emanaldiak ere izango dituzte.

Leitzan eta Areson aldiz, lau egunez izango dituzte ospakizunak. Gaur bertan, elkarretaratzea, performance-a eta mokadu jatea izango dituzte. Hurrengo egunetan berriz, jokoak, tailerrak, poteoak eta abar izango dituzte.

Eskubidea aldarrikatuz

Zizurkilgo ezker abertzaleak Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta «zizurkildar guztiak, bereziki emakumeak, antolatu eta borrokara» deitu ditu, «emakumeak askatasunean bizitzeko eskubidea aldarrikatu» ditzaten.



Iaz Emakumearen Eguna zela eta, Zizurkilgo emakumeen egun osoko irteera egin zuten. HITZA

Honen inguruan adierazi du «garbi izan behar dugula emakumeak pertsona eskubidedunak garela eta sexuen arteko botere harremanak gainditze bidean, emakumeoi dagozkigun eskubideak aitortuak eta bermatuak» izan behar direla. Bestalde, «jendarte parekidea eraikitze berrakatu» behar dela ere gaineratu du. Horretarako, gizon eta emakumeen artean ematen diren des-

berdintasunak gainditzeko denok beharrezko baliabide eta birtuteak jarri behar ditugula dio ezker abertzaleak.

Politika instituzionalari dagokionez, politika feminista garrantzua «administrazio eta instituzio desberdinei» dagokiela ere adierazi du. Beraien ustez, gaur eguneko «berdintasun politika formalak itxurazko berdintasuna» soilik bilatzen baitu. Politika

eraginkorra sustatzeko emakumeen ikuspegia, iritzia, ekarpena eta parte-hartzea «ezinbestekoa» dela uste du.

Emakumearen indarkeriaren aurka egiten jarraitu behar dela ere uste du. Guzti hau kontutan hartuta elkarretaratze bat deitu du gaur 19:00etan Joxe Arregi plazan. Zizurkildar guztiak bertan parte hartzera gonbidatu ditu Zizurkilgo ezker abertzaleak.

↓ Ekitaldiak

ADUNA

■ **Martxoak 12, larunbata.** Afaria Adunako Ostatuan, 21:00etan.

ALBIZTUR

■ **Martxoak 11, ostirala.** Afaria Albizturko Herriko Etxe jatetxean.

ALEGIA

■ **Martxoak 12, larunbata.** 21:00etan afaria Hilario Berri tabernan.

AMEZKETA

■ **Martxoak 8, gaur.** Alde bate-tik, jubilatuek merienda antolatu dute Arkaizpe tabernan, 17:30ean. Bestalde, Guraso elkarteak afaria antolatu du Zalbide sagardotegian. 20:30ean. 20:15ean plazan elkartuko dira eta autoetan joango dira bertara.

ANOETA

■ **Martxoak 11, ostirala.** 21:00etan, afaria egingo dute Goikoetxea jatetxean.
■ **Martxoak 13, igandea.** Emakumeen arteko Xake Topaketa egingo dute, Hozpel kaleko udal

lokaletan. Topaketa izango denez ez da irabaserik egongo, eta partaide guztiak orogarri bat jasoko dute. Egun horretan bertan Donostian izango den Litaloian parte hartzera joateko deia ere egin dute.

BERASTEGI

■ **Martxoak 11, ostirala.** Afaria egingo dute Basurde elkartearen.

IKAZTEGIETA

■ **Martxoak 11, ostirala.** 19:00etan *Berdintasuna, indarkeria eta tratu txarrak* hitzaldia emango du Eider Epeldek liburutegian. 21:00etan afaria egingo dute Toki Alai jatetxean.

IRURA

■ **Martxoaren 12, larunbata.** 21:00etan afaria egingo dute Zarretxe tabernan. Bertan erosi izango dira afarirako txartelak hilaren 11 bitarte.

LEITZA-ARESO

■ **Martxoak 8, gaur.** 20:00etan elkarretaratzea egingo dute Lopeneko atarian. 20:30ean Performance herritarra egingo dute. 21:00etan mokadutxo bat jateko aukera izango da Aurreran.

■ Martxoak 11, ostirala.

20:00etan *Las Mujeres de verdad tienen curvas* filmak ikusi ahal izango da zine forumean. Ondoren, mokadua jateko aukera egongo da. Bi ekitaldiak Aresoko Pake Toki elkartearen izango dira.

■ Martxoak 12, larunbata.

Emakumeek prekaritateari planto! lema duen eguna ospatuko dute. 12:00etan *Leitzaldeko emakumeen errealitatea, 8 bizipenetan* saioa izango da Aurrera elkartearen. Bertan eskualdeko emakumeek euren bizipenetatik bizi duten errealitatea kontatuko dute. Horien artean egongo dira baseritar bat, ama gazte bat, gazte langabetu bat, dendari bat, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako kide bat eta jubilatua bat, besteak beste. 14:30ean bazkaria egingo dute Atekabeltzen. 18:00etan *Emozioak landuz, gozatu jolastuz* jokoak egingo dituzte plazan. Ondoren, poteo feminista izango da. Gauetan, festa izango da Gaztetxean, Garraxi taldeak kontzertua ere eskainiko duelarik.

■ Martxoak 26, larunbata.

10:00etan *Autodefensa feminista* tailerran antolatu dute Erleta eskolako gimnasioan.

UGARTE

■ **Martxoak 12, larunbata.** 13:30ean bazkaria egingo dute Ugarteko elkartearen.

VILLABONA

■ Martxoak 8, asteartea.

12:00etan bilkura egingo dute Malkar plazan.

■ **Martxoak 9, asteazkena.** Argazki erakusketa zabalduko dute 18:00etan Aljibearen. Erakusketaren ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da zabalduko egunean. Hemendik aurrera, astelehenean ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik erakusketa.

■ Martxoak 10, osteguna.

18:00etan *Oroitzapena eta ahaztea, zorientasunaren giltzak* gazteleeraz izango den hitzaldi-tailerra antolatu dute Ibon de la Cruz psikologoarekin, udaletxeko balioanitzeko gelan elkartuko dira.

■ **Martxoak 11, ostirala.** *Ikusi, entzun eta... bizi* emanaldia izango da 20:00etan Gurea Antzokian. Bertan hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izango da. Nahikari eta loritz Galarraga, Aukeran Dantza Taldeko partaideek erakustaldi bat egingo

dute. Asmube abesbatzak emanaldia eskainiko du. Eta, Idoia Sanchez ipuin kontalariak emakumeentzako ipuinak eskainiko ditu.

■ Martxoak 12, larunbata.

14:00etan bazkaria egingo dute Olentzo jatetxean.

ZIZURKIL

■ **Martxoak 8, gaur.** Zizurkilgo ezker abertzaleak dei egiten die herritar guztiak *Ez dut isiltasunaren konplize izan nahi lempen* elkarretaratzea egingo du, 19:00etan Joxe Arregi plazan. Horrez gain, ezker abertzaleak zizurkildar guztiak eta bereziki emakumei gaurko Bilgune feministak antolatzen dituen mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditu.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Villabonako Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela, gela bat, bainugela bat eta trastelekuak ditu. 600 euro hilero. Garaje itxiarekin nahi izanez gero, 650. Harremanetarako: 669-82 70 96.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!
Leire Gurrutxaga Etxeberria (Tolosa), 2 urte. Zorionak etxekoen eta batez ere Eñauten partez.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gora eta behera



ZABORRA LURREAN

Urteroko kontua da, batzurenzako erosogoa da zaborra lurrera botatzea edukiontzi eta paperontzi batetara ger-

turatu baino. Atzo goizean haur parke bat baino gehiago zeuden irudikoa bezala, zaborraz beteta. R.C

DANTZA EUSKARAZ

Atzokoan aisialdi taldeen konpartsen dantzak ikuste-ko eguna zen. Euskara gutxi entzu ahal izan zen, Kazkabarra izan zen bai leloa eta

baita musika ere euskaraz-koak aukeratu zituenak. Ea datorren urtean euskara gehiago entzun ahal den As-telenitan. A. IMAZ



Garraio publikoa

RENFE

■ **Ohiko ordutegia** izango du.

TSST

■ **Eguneroko zerbitzua.**
Zuzenekoak DONOSTIA-TOLOSA norabidean:

07:45 (Amaratik aterako da),
09:00 (Amaratik aterako da),
13:10, 14:30 (Zubieta kalea),
18:30 eta 19:50.
■ **Eguneroko zerbitzua.**
Zuzenak
TOLOSA-DONOSTIA norabi-
dean:
07:10, 08:20, 09:30, 13:55,
15:00 eta 19:10.

TOLOSALDEA BUS

■ **00:00-02:00-03:30.**
TOLOSA (Zumardi Txiki)-
Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-
Amezketeta-TOLOSA.
■ **01:00-02:45-04:15.**
TOLOSA (Zumardi Txiki)-
Amarotz-Ibarra-Berrobi-El-
dua-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

■ **07:30etik**
10:00etara.
Ibilbidea:
SANTA KLARA-
Foru etorbidea-Geltoki-lurre-
lurreamendi-Usabal-
industrialdea-Amarotz-
San Blas-Iparagirre-

Zaballarreta-Kondeko
aldapa-Klinika-
SANTA KLARA.
■ **10:30etik 14:30era eta**
16:00etatik 22:00etara.
Ibilbidea:
ZUBI BERRIA-Usabal-
industrialdea-Amarotz
(beheran)-Kondeko aldapa-
ZUBI BERRIA.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

LAGUN ARO GBC
Real Madrid
saskibalo partida

Martxoak 10 • Osteguna
20:30ean
Donostiako Ilunben



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira